

BERBAROTARRA

3. alea. 1994ko ekaina

hasieran arrastaka azkenean arrakasta

5. urteurreneko ospakizunen multzoa izan da Berbarok sekula egin duen ekitaldirik handiena. Batzuentzat gehiegizkoa, dauzkagun indarretarako, beste batzuentzat, gehiago ere egin genezake. Egin dugu bai, eta besteak hor konpon!

Orain balorazioen ordua da. Duda barik, alde onen artean bi aitatu behar ditugu: bata, mobilizatu dugun jende piloa, Berbarokoak eta Berbarokoak ez direnak (beharbada, euskararen alde horrenbeste jende 92ko Ibilaldian baino ez zen ibiliko Durangon); bestea lortu dugun oihartzuna da: ia egunkari guztietan agertu gara, irriti gehienetan hitzegin dugu eta ETBn ere eskaini ziguten txokotxo bat. Nahita ere ez genuke hainbeste propaganda lortuko.

Beharbada, orain ikusita ez du hainbestera-ko ematen, baina orain bost urte, hasi ginenean, nork pentsatuko zukeen bazkarian batu zen jende guztia batu-ko zela, edo hain rockaldi indartsua egiteko gai ginela?


5. urteurrenean lantalde batek 10 bat irabazi zuen, segurtasunaz arduratu zen taldeak. Ez da bate-erre erraza izaten honelako jaialdietan autoritatea jartzea eta aldi berean umorea eta pazientzia erakustea. Behin baino gehiagotan ikusi ditugu rock jaialdietan segurtasunaren arduradunak ikaragarritzko zalapartak ateratzen, gauzak bere onetik atera eta txarrago ipintzen. Ez zen horrelakorik gertatu gure jaialdian, nahiz eta Ikastola inguru guztia *kolatzeko* asmoarekin zeuden gaztez josita egon. Banaka bat sartu zen ordaindu gabe, beraz, taldeak bere helburua bete zuen. Eta igerrri ere ez ziren egin: ez zen ez zaratarik, ez iskanbilarik, ez arazorik izan. Chapeau.

Diru kontuak. Bosgarren urteurrena prestatzen hasi ginenean, horrelako aste nagusi bat antolatzeak gastu handiak ekarriko zituela espero genuen. Izan ere oso programazio sendoa antolatu zen (pailazoak, mahai-ingurua, zinea, jaialdia...). 300.000 pta inguruko zuloa egingo genuela kalkulatu genuen, baina aurrera egitea erabaki zen, euskararen aldeko *inbertsioa* izango zelako. Azkenean, kontuak kontu eta jaialdira hurratu ziren 1500 lagun-ner sarrerari eta tabernako gastuari esker, ez dugu zulorik eduki. Parra egin dugu. Beraz, esan genezake rock jaialdiak finantziatu dituela aurreko egunetako herri-ekintzak. Itzelezko arrakasta.

Hala ere, egin duguna ezinezkoa izango zen durangar askoren laguntzagatik izan ez balitz eta bereziki Ikastolako guraso eta irakasleen pazientzia eta bostekoagatik izan ez balitz. Eskerrik asko denoi.

Akatsak ere izan genituen, jakina. Gu ez gara "0 akats"ekoak, gu "akatsak akats, ekin eta ekin"ekoak gara. Izan ere, akatsetatik ikasiko dugu 10. urteurrena hobeto prestatzen. Baina ez pentsatu hori denik aurrean daukagun erronkarik gogorrena. Euskarak hordago bat jo digu eta Berbarok "gura" erantzun du. Orain biok irabazten irtetzeko moduren bat asmatu beharko dugu!

Hori da egonezina eta kantatu beharra!



Eskerrik asko Tronperri, Centro Extremeño, Bittor Aiape, Takolo, Pirrutex eta Porrotx, Durangaldeko txistulariak, Mikel Markez eta Jose M. Irazu, Ourdaybi, Betsuen Band, Xabier Amuriza, Unai Iturriaga, Igor Elorza, Txala, Martxoak 31, Linton-Taun, Exkixu, E.H. Sukarra, Ikastola, Espe, Ane Igartiburu, Peter Roberts, Ikastolako Kepa, Txotxe, Luis Berrizbeitia, Asier Bilbao eta abar luze bati...edo biri. Baita Rafael Iburguen, Pedro Millá, Armando Gresca, Ramón Espid, Alexandra Queirós, Manuel Dobarro, Carmen Viso, Sebastia Ruig, Antoni Puig, Pep Spriú, Luis Camarasa, Felipe Nadal, Nkongo Moieme eta Oman Biyicki ere.


Barbaroko Sentsibilizazio taldea jo ta ke ari da lanean euskararen normalkuntzarako udal-plangintza bete nahian. Ahalegin horretan, dendaz dendako kanpaina bati ekin diote. Hau da, Durangoko dendetan "Euskeraz badakigu" jartzen duen pegatina banatu dute. Pegatinarekin batera merkealdiak iragartzeko kartelak ere banatu dituzte. Kanpaina ekainaren 27tik uztailearen 1era bitartean egin da.

Kanpaina berarekin jarraituz, Administrazioarekin komertzioekin, elkarteekin eta abarrekin euskaraz harremanetan jartzeko karta-eredu desberdinak kaleratu dira. Zerbait eskatu, instantzia edo salaketa bat egin nahi izanez gero, aipatutako euskarazko eredu erabiltzeko aukera izango dugu durangarrok. Karta ereduak Barbaron bertan izango dira edozeinentzat. Barbaroko bazkideak karta-eredu bana jasoko du etxean.

Lokalik gabe jarraitzen dugu barbarotarrok. Orainarteko ahalegina antzua izan da. Beraz, norbait lokal merke baten berri badu, dei beza Barbarora (620.19.18). "Zorionsuak aterperik ez dutenei aterpea ematen dietenak" (57-3 S. Gorka).

Berbarok bazkide kanpaina bat egiteari ekin dio indar gehiago batzeko. Zuk ere lagundu dezakezu. Lagun euskaltzalaren bat baduzu, egizu bazkide. Erakutsiozu Berbarok urte osoan zehar zertzuk egiten dituen.

Elorrioren euskara bultzatzeko talde bat sortu dute, gurearen modukoa. Oraindik hasi baino ez dira egin baina jende pilo ederra batu da eta laster berri onak emango dizkigutelakoan gaude. Zorionak, Elorriko!



Beñat Gaztelurrutia barbarotarrak Eskolarteko Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi du. Ez Barbarokoa delako, baina Berbarokoa da. Zorri onak!

Eusko Ikaskuntzak hogeita hamar bat ikerlan bultzatuko ditu datozen hilabeteotan. Ikerlanek hiru urte iraungo dute eta bertan 70 ikertzailek lan egingo dute. Aipatutako proiektuak aurrera eramateko 645 milioi pezeta inbertitu beharko dira eta diru hori lortzeko herri-erakundeek

eta enpresei laguntza eskatuko die Eusko Ikaskuntzak. Badirudi Durangoko Udalak ere parte hartuko duela.

Argentinan 300 pertsona inguru daude euskara ikasten. Gehienak jatorri euskaldunekoak. Adibide on bat Bixente Agirre, 80 urteko agurea dugu. Getxotar hau erdal-dun joan zen Argentinara orain berrogeita hamabi urte eta hantxe ikasi du euskara azken hogeita urteotan. Ea hurragoko batzuk ere animatzen diren!

Uztailearen 18tik 30era bitartean, Iruñean Udako Euskal Unibertsitatearen XXII. edizioa izango dugu. Artea eta Komunikazioa, Giza eta Gizarte Zientziak, Hizkuntzalaritza, Natura Zientziak eta Zientzia eta Teknika jorratuko dira. Berri gehiago jakin nahi duenak Bilboko 421 71 45 telefonora deitu dezala.

BaGaToZ!!

Berbaroko 5. urteurrenko jaialdian agertu zineten azkenean? Bai, ezta!! Eta han izan ez bazineten, pasada bat izan zela jakin behar duzue.

Ba, ez dakizue ze plan ditugun etorkizunerako!! Hasteko, udarako kanpamendua antolatu dugu eta Guezanbatar guztiak bertan batuko gara. Bai, uztailearen 11tik 17ra Riezu aldeko kanpainean ibiliko gara, aparteko giroa sortuz.


Hainbat dendatan, 30 pertsona inguru batuko gara. Programazio zeharo interesgarria daukagu (eguraldiak lagunduko ez balu, programa alternatibo majo bat antolatuko dugu). Egingo ditugun ekintzen artean hauexek dira batzuk:

- ▲ zaldian ibili
- ▲ piragua ikastaroa
- ▲ eskalada

- ▲ mendi bizikleta
- ▲ mendi ibilaldiak
- ▲ superbibentzia egun bat
- ▲ eta abar

Guzti honekin ikaragarri nekatuko garenez, afalosteetarako zer eta gau-beilak antolatu ditugu!

- ▲ bertsolari famatuak
- ▲ musikariak
- ▲ erromeria
- ▲ eta abar



Baina dena ez da jo ta ke ibiltzea izango, etzanda egoteko astia ere izango dugu eta aste zoragarri horretan natura eta euskararekin gure lokarriak estutzen saiatuko gara. Honelako gauzak gustatzen baldin bazaizkizu, hurrengo baterako, bizkor ibili eta adi egon. Badakizu non gauden? BERBARON, noski Korsakov.

GUEZAN BA!

NEURRIAN

Berbarotarra dugu berriak ematen, urtean lau bat aldiz zaigu kaleratzen; norbait ba omen dabil zarraparrak batzen, albiste ta aholku hortik barreiatzen; hurrengo alerako jakingo da nor den.



Hirugarren aleko atal berezia, euskaldun kulebroia denen gutizia; hiru protagonista, haria bizia, batek drama bizi du, bestek irrikia; negarranpulu ugari, atera zapia!

PREMIAN

AEKide kanpaina

AEK-k egoera ekonomiko larria bizi du. Administrazioetik jaso duen dirulaguntza urria izan da eta azken bi urteotan murrizketa nabarmena izan du (1993an 90 milioi gutxiago eta 1994an 100 milioi gutxiago jasotzea espero dute).

Aipatutako egoerari aurre egiteko, herritarrei laguntza ekonomikoa eskatzea erabaki dute aekakoek. Urteko laguntza 6.000 PTA.koa da. Hala ere, zenbateko hori ordaintzerik ez daukanak, nahi duen diru-kopurua eman dezake. Ordaintzeko modu desberdinak daude: hiru hilabetero, sei hilabetero edo urtean behin. Datu pertsonalak, eman nahi den diru-kopurua, kontu korrontearen zenbakia eta ordaintzeko modua honako helbide honetara bidali behar dira: AEK. Arrasate kalea, 51; 2 ezk. 20.005 DONOSTIA. AEK-k aekide txartela bidaliko dizu.

Berbaro AEKren egoeraz jabetu eta aekide bihurtzea erabaki du.

DHKren kanpaina

Baten batek pentsatuko du euskararen aldeko elkarteak banpiroak bezalakoak garela, beti dirua eskatzen. Arrazoirik ez zaio faltako baina ez da nahita egiten den gauza. Aproba egin duenak badaki zelako lotsagarria eta astuna izaten den eskean ibiltzea. Kontuak kontu, kontua da DHK elkarteak - ERAZ aldizkaria ateratzen duenak-bazkide kanpaina bat prestatu duela bere diru-zuloak asetzeko diru-iturriak topatzeko. Urtean 2000 pezeta dira (ez da asko astero-astero irtetzen den aldizkari baten truke). Diru hori emateko moduan bazaude, ez birritan pentsatu eta egin zaitez DHKko bazkide, merezi du eta. Eta ezin baduzu, jarraitu irakurtzen, horrexetarako argitaratzen da eta.

BRIGADILXX AZPIEGITURA TALDEA

Talde honi "brigadila" ere deitzen diogu eta bere egiteko nagusia txosnak montatzea izaten da. Horrez gainera, laguntza teknikoa eskaintzen dute muralak, eskenatokiak eta abar montatu behar direnean. Nahikoa ezkutuko lana da, eta esker txarrekoa. Lana ez da montatzea eta desmontatzea bakarrik izaten: edari guztien ordezkarietara deitu behar zaie, banan-banan eta hainbat bider; plastikozko basoak lortu behar dira; musika-ekipoa; instalazio elektrikoa egin; otartekoak egiteko erosketak egin; udaletxean baimena eskatu...

Brigadila taldean bi-hiru lagun ibili dira orain arte eta horietako batek erreleboa eskatu du. Beraz, zuetariko baten bat eskuekin trebea bada eta *brigada* izan nahi badu, oraintxe dauka aukera paregabea.



eskamak kentzen

ASKO/HAUNDI

Euskaraz izen guztiek ez dute gutxi/asko zenbatzailea onartzen. Zenbait kasutan, izena zenbakaitza (kontatu ezin dena) denean, *handi/txiki* bikotea erabili behar dugu. Esate baterako, *argi, bero, ke, gogo, luzera, zarata...* Era berean, horrelako sustantiboekin egokiagoak dira *handitu, txikitu, areagotu* bezalako aditzak.

HONELA EZ

1. **Ke askoren** artetik atera dituzte bizilagunak Los Angelesen lurrikararen ondoren.
2. **Bero asko** dago gaur.
3. Insumisoek etxeratzeko **gogo asko** azaldu zigten.
4. Lurrikarak kalte material **asko sortu** ditu.
5. **Indar asko** dauka.

HONELA BAI

1. **Ke handiren** artetik atera dituzte bizilagunak Los Angelesen lurrikararen ondoren.
2. **Bero handia** dago.
3. Insumisoek etxeratzeko **gogo handia** azaldu zigten.
4. Lurrikarak kalte material **handiak** sortu ditu.
5. **Indar handia** dauka.



Berbaroko ekintza asko umeei begira egiten dira nahiz eta oso defizitarioak izan, etorkizunari begira gastuak egitea, inbertitzea delako. Hala esan digute behintzat goiko bi ekonomistagai horiek.

KamisetaK

agortzeko puntuan daude. Berbaroko kamiseta bat erosi nahi baduzu bizkor ibili. Beharbada ez da gehiago aterako zati batean eta.

Orri honek ez dauka Zuzendaritza Batzordearen baimenik, baina Zuzendaritza Batzordeak ere ez dauka baimen horren onirik eta gainera baimenak Zuzendaritza Batzordearen onirik ez badauka, akats tipogra- fikoa salbu, noiz aitolatu du Berbarok akelarre bat? Dena dela, gu ez gara joango.




Behar duguna da maatasuna da

Berbaroko lokal berrien inaugurazioa. Baten faltan post lokalei diru Berbarok. Argazkian Martxoak 31 talde ospetsuko partaideak gure lokalei adurra dariaela begira. Beharbada bertan hasiko dira entsaikakoak egiten.



Dehaxekar bat finantzazio iturrien bila



Seinale berria. Afariren batera bazoz, eta seinale hau ikusten baduzu, kontuz, dehaxekarren bat ibili daiteke inguruan eta zure poltsikoak isripu larriren bat izan dezake. Hala gertatu zitzaizen zenbait Berbaroko bazka-



Berbaron koru hard-gregorian-core bat sortu da. Partaideak Txiki, Txapel, Araniza Z, Bitor, Edurne eta Gotzone dira, azken hau bozarekin baina botu gabe. Momentuz Centro Extremehoa ensaiatuko dute. Oso errepertorio zabala dute: "Agur, jaunak", "Antoni, Antoni, zure atean nago ni", "Ez, ez dut naht", "Behin batian frontoian".

OPORRETAN HITZEGIN ERDERAZ Jaenera bazoaz.

BARBAROEN botailina